

Euskarazko izen arrunten proposamena

Fregatidae familiarentzat

Fregata minor

eta genero honetako gainontzeko 4 espezieak:

F. ariel, *F. magnificens*, *F. andrewsi*, *F. aquila*



EUSKAL
BATZORDE ORNITOLOGIKOA
COMITÉ ORNITOLÓGICO
DE EUSKADI

2024ko martxoan


Asier Sarasua Aranberri

Euskal Batzorde Ornitologikoa

Fregata generoa

Suliformeen ordenean dauden 4 familietako bat da Fregatidae familia (zangak, ubarroiak eta anhingak dira beste 3 familiak).

Fregatidoen familian genero bakarra dago eta 5 espezie, itxuraz oso-oso antzekoak direnak: kolorez beltzak, emeak sabelzuriak eta arrak papargorriak (ez beti) eta denak ere urkila itxurako buztan luzearekin.



Itsaso tropikaletan bizi dira eta hegalaria trebeak dira, hego-zabalera handikoak eta planeatzaile apartak. Hortik datorkie euren izen zientifikoa, *Fregata*, izen bereko itsasontzien antzera, hegazti hauek ere arin eta bizkorak direlako. Beste iturri batzuen arabera (<https://pt.wikipedia.org/wiki/Fregata>), beste hegazti batzuk erasotzeko duten ohituratik omen dator fragata izena (kleptoparasoak dira), garai bateko fragatek ere antzera erasotzen zituztelako itsasontzi piratak. Bata izan ala bestea, fragata ontzien izenetik eratorri zen hegazti honen izen generikoa.

Euskal Herrian ez da sekula behatu, ezta iberiar penintsulan ere. Mendebaldeko paleartikoan ere anekdotikoa da, inon behaketarik bada.

Taxonomia

- **Familia:** Fregatidae (genero bakarra, 5 sp.)
- **Generoa:** Fregata (5 sp.)

Informazio osagarria:

- [https://eu.wikipedia.org/wiki/Fragata_\(hegaztia\)](https://eu.wikipedia.org/wiki/Fragata_(hegaztia))
- <https://avibase.bsc-eoc.org/species.jsp?avibaseid=788EBCAB>
- <https://birdsoftheworld.org/bow/species/grefri/cur/introduction>

Euskarazko izenak

Ondorengo baliabideak begiratu ditugu, [Euskalterm](#), [Elhuyar hiztegia](#) eta [Avibase](#), eta ez dugu aurkitu hegazti honen euskarazko izen arruntik, ezta generikorik ere. Wikipediak [Fragata](#) darabil generoarentzat, baina ez du espezie izenik adierazten. ETBren HIKA datu-basean 'tropikoko txori' generikoa azaltzen da.

Inguruko hizkuntzetako erreferentziak

Inguruko hizkuntzetan adostasun handia dago hegazti hauen izenari dagokionez. Gehienek izen zientifikoa hartu dute abiapuntu generoa izendatzeko orduan. Besteak beste, Frigatebird (EN), Fregata (CA), Frégate (FR), Fregattvogel (DE), Fregata (IT). Hizkuntza nordikoetan eta eslaviarretan ere joera berbera ikus daiteke ia hizkuntza guztietan. Gaztelania da salbuespen nabarmen bakarra. Herrialdearen arabera, *fragata* zein *rabihorcado* izendatzen dute, bigarren horrek urkila-buztanari erreferentzia eginez. Portugesez ere bi joerak dituzte (*fragata* / *rabiforcado*).

Proposamena

Euskarazko izena proposatzeko orduan 3 bide aurreikusten ditugu.

1. Batetik, suliformeen arteko generoa izanik, ubarroien eta zangen tradiziozko beste izen euskaldun batetik abiatu gaitzke (*glopa/kofre* edo *gabarrasa/karrabaso*, adibidez). Hala ere, hegazti honen ezaugarriak eta morfologia ikusita, ez zaigu iruditzen biderik egokiena.
2. Bestetik, gaztelaniaren bidea hartu dezakegu eta hegaztiaren ezaugarri nagusia den buztan bikoitz horretatik abiatu izen generikoa sortzeko orduan.
3. Azkenik, inguruko hizkuntza gehien-gehienek egin duten moduan, izen zientifikoa izan daiteke abiapuntua.

Hiru aukeren artean, azken horixe iruditzen zaigu egokiena eta *Fragata* erabiliko genuke izen generiko gisa.

Espezifikatzaileei dagokienez, Fregata generoan 5 espezie daude. Itxura aldetik oso-oso antzekoak dira eta ez dirudi izen deskriptiboetara jo dezakegunik, zoritxarrez; inguruko hizkuntzetan ere ez da izan hori bide nagusia.

Bi espezieri dagokienez (*F. aquila* eta *F. andrewsi*) oso ingurune geografiko zehatzean kumatzen dira (Christmas eta Ascension uharteetan), endemikoak dira eta mehatxatuta daude. Jatorri geografiko hori izan daiteke espezie horiek bataiatzeko aukera egokiena, inguruko hizkuntza gehienetan bezala (esate baterako, *Christmaseko fragata* eta *Ascensioneko fragata*).

Gainontzeko 3 espezieei dagokienez, itxura ez ezik, bizitokia ere berbera dute (3 ozenanoetako ur eta kostalde tropikalak). Hori dela eta, tamainaren arabera izendatzen eta bereizten dituzte gure inguruko ia hizkuntza guztiek:

- *F. ariel* (txikiena): petit, petite, pequeno, chico, lesser...;
- *F. minor* (ertaina): great, común, gran, grande, grote, stor, maggiore...;
- *F. magnificens* (handiena): magnificente, grossa, maginifica, real, superbe, majestosa, pragt...

Aurreko guztia kontuan izanik eta euskarazko tradizioa azterturik, ondorengo proposatuko genuke, okil eta zerretan dugun eredia jarraituz (txiki/ertain/handi), espezie hauek horrela izendatzea: fragata txiki (*F. ariel*), fragata ertain (*F. minor*) eta fragata handi (*F. magnificens*).

Oro har, ez zaigu gustatzen espezieak tamainaren arabera izendatzea (oso nahasgarria izan daiteke genero zabaletan). Hala ere, genero honek dituen zailtasunak ikusita eta kontuan izanik genero txikia dela, seguru asko hauxe litzateke irtenbiderik egokiena.

Egia da, era berean, beste hizkuntza gehienek txiki/handi/erraldoi trinomioa aukeratu dutela (beharbada ingelesaren eraginez). Dena dela, ez zaigu ezinbestekoa iruditzen sailkapen horretara jotea, besteak beste, gure tradizioa ikusita eta, batez ere, hegazti espezie ertainaren izen zientifikoa kontuan izanda: *F. minor* (eta ez *F. major*).

Proposamenak: Fragata txiki (*Fregata ariel*), Fragata ertain (*Fregata minor*); Fragata handi (*Fregata magnificens*), Christmaseko fragata (*F. andrewsi*); Ascensioeko fragata (*Fregata aquila*).

Asier Sarasua (Itsas Enara Elkarte Ornitologikoa), Aitor Galarza (Bizkaiko Foru Aldundia), Azaitz Unanue (Txepetxa Hegaztien Zientzia-Eraztunketarako Elkarte), Maite Laso (Aranzadi Zientzia Elkarte), Gorka Gorospe (Mirua Actividades de Naturaleza), Gorka Belamendia (Salburuko Ataria Interpretazio Zentrua), Juan Arizaga (Aranzadi Zientzia Elkarte), Txema Fernandez (HAZI, Eusko Jaurlaritza), Martin Rezola (IVAP Euskal Institutua), Aitor Leiza (Itsas Enara Elkarte Ornitologikoa).

Euskal Batzorde Ornitologikoa, 2024ko martxoan

